

CORPORACIÓN

rtve

BERDINTASUNERAKO GIDA

ESKULIBURU HONEK RTVEK
BERE JARDUERA GUZTIETAN
GIZONEN ETA EMAKUMEEN
ARTEKO BERDINTASUNAREKIN
DUEN KONPROMISOARI
ERANTZUTEN DIO

instituto

rtve



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



CORPORACIÓN

rtve

**BERDINTASUNERAKO
GIDA**



instituto

rtve





BERDINTASUNERAKO GIDA

Bigarren edizioa: **martxo 2022**

© **Corporación RTVE**

Editatu: **Instituto RTVE**

Barne-diseinua: **Rasgo Audaz**

Azala: **Natàlia Serrano (Huygens Editorial)**

Hizkuntza koofizialetako berdintasun-gidaren bertsioek RTVEko Institutuarekin elkarlanean aritu diren Kataluniako, Euskal Autonomi Erkidegoko eta Galiziako Erakunde ofizialen* iradokizunak jasotzen dituzte, gehienetan generoari dagokionez gramatika-bereizketarik ez dagoelako edo bibliografia espezializatua eman delako. Bertsio horietako batzuetan, arrazoi horiengatik, gaztelaniazko testuen bertsio partziala ere errespetatzen da, ingelesezko edo frantsesezko itzulpenetan gertatzen den bezalaxe.

*Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila eta Galiziako Xuntako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza.

Queda rigurosamente prohibida, sin la autorización escrita de los titulares del copyright, bajo las sanciones establecidas por las leyes, la reproducción total o parcial de esta obra por cualquier medio o procedimiento, comprendidos la reprografía y el tratamiento informático, y la distribución de ejemplares mediante alquiler o préstamo públicos. Si necesita fotocopiar o reproducir algún fragmento de esta obra, diríjase al editor o a CEDRO (www.cedro.org).

ÍNDICE

1. SARRERA	7
2. JARRAIBIDE NAGUSIAK	9
3. ZEHATZ-MEHATZ ZER EGIN	11
4. NOLA LANDU EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA	15
4.1. ARAUDIA	16
4.2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO INFORMAZIOA	18
5. HIZKUNTZA ETA BERDINTASUNA	27
5.1. TERMINO GENERIKOAK, KOLEKTIBOAK, ABSTRAKTUAK ETA PERIFRASIAK	30
5.2. DESDOBLAMIENTOS	31
5.3. PROFESIONES, CARGOS Y OFICIOS	32
5.4. CONSTRUCCIONES Y SESGOS SEXISTAS	35
5.5. EL USO DE @, «x», «-e»	36
6. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK	37



1. SARRERA

RTVEko Berdintasunerako Behatokiak baditu bi agindu: RTVEko edukien jarraipena egitea, eta ziurtatzea haietan guztietan zaintzen dela gizon-emakumeen arteko berdintasuna.

RTVE Korporazioaren estilo-liburua 2010ean onartu zen; harrez gero, baina, espainiar estatuan eta Europako gainerako estatuetan lege-esparrua ez da lehengo bera eta gizarteak ere aurrera egin du, alegia, orain, exigentzia berriak eskatzen zaizkio RTVERi, eta ezin du beste alde batera begira egon¹.

Har dezagun **RTVERen Berdintasunerako Behatokiaren araua (4/2017 Araua)**, ea zer helburu dakartzan Korporaziorako:

- a) Saiatu behar du gizon-emakumeen berdintasun-printzipioa errespetatu, ezagutu eta zabal dadin, zainduz RTVE Korporazioaren jardueran ez dela egongo inolako ez desberdinkeriarik ez bazterkeriarik sexuagatik.
- b) Saiatu behar du irudi berdinzalea emititzen, orekatua eta plurala bi sexuentzat, edertasun-kanonik eta sexu-estereotiporik gabea; eta saiatu behar du orobat erakusten emakumeek bizi-bizi parte hartzen dutela bizitzaren esparru batean zein bestean kunplitzen dituzten funtzioetan, bereziki gogoan harturik ume eta gazteentzako programazioaren edukiak.

1] Ikus 6. atala: bibliografia

- c) Begiratu behar du ea baden kode etikorik ezarrita RTVE Korporazioaren jardueran berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeria prebenitzeko, eta kode hori aplikatzen dela ere jagon behar du.
- d) RTVE Korporazioaren hedabidetatik zabaltzen diren edukiek ezin dute emakumeen aurkako indarkeria zuritu, hutsaldu edo inola ere bultzatu. Horretan saiatuko da.
- e) Ahaleginak egin behar ditu hizkuntza ez-sexista erabil dadin.
- f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta genero-indarkeria ezabatzeko instituzio-kanpainekin elkarlanean aritu behar du.

Har dezagun, orain, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragin-garrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa**, han ere aurkituko baititugu helburu batzuk RTVE Korporaziorako bereziki jarriak; besteak beste, autoerregulazioaren bidez jokabide-kode batzuk hartzea, berdintasun-printzipioaren edukia transmititzeko.

Bada, legeak dakartzan agindu horiek betetzearren, gida hau onartu dugu. Bertan, ildo estrategiko batzuk zehaztu ditugu, RTVEren eguneroko lanean genero-ikuspegia praktikoki txertatzeko, eremu guztietan.

Emakumeen eskubideak giza eskubideak dira. Hortaz, RTVErentzat berariaz ezarrita dagoen lege-esparruaz gainera -aipatu dugu-, badira beste arau batzuk ere beren beregiz gizon-emakumeen arteko berdintasuna lantzen dutenak, eta korporazioak derrigor bete behar dituenak, eta gida honek jaso. Informazioa profesionaltasunez eta etikaz landuko badugu, ezinbestekoa da giza eskubideak errespetatzea. Horregatik, gida honek haiei ere egiten die erreferentzia, RTVE Korporazioaren hedabide eta kanal guztietan aplikatu daitezten.

Azkenik, baloratu eta neurtu ere egin beharko da zenbateraino betetzen diren gida honetako printzipioak; horretarako erabiliko dugu RTVEren Berdintasun Behatokiaren urteko txostena.

2. PRINTZIOPIO OROKORRAK

Ikus ditzagun medioetan gai hau zuzen lantzeko printzipio orokorrak:

- Saiatu behar dugu eredu maskulinoa ez dadin betiko hegemoniko geratu, bakarra balitz modura, edo hobe, edo desiragarria, edo erreferentzia-eredu.
- Saiatu behar dugu emakumeak eta gizonak ez daitezen identifika rol edo jarrera estereotipatu jakin batzuekin, ez fikzioan, ez denborapasako programetan, ez albistegietan.
- Emakumez ari garelarik, saiatu behar dugu ez bereziki nabarmentzen ezelako kontu pertsonalik zerikusia duenik familia-rolarekin, janzkerarekin, itxura fisikoarekin eta abar, horrelakorik ez baita aipatzen gizonez dihardugunean.
- Saiatu behar dugu emakumeak ez irudikatzen sexu-objektu gisara. Bereziki kontuz ibili behar dugu emakumeen gorputzaz ematen dugun irudiak ez ditzan emakume horiek gauza bihurtu, eta saiatu behar dugu gorputza ez erabiltzen erakargarri gisa, ez publizitatean, ez denbora-pasako programetan, ez informazio-saioretan.
- Emakumeak ez aurkeztu biktima gisa.
- Ez inor bazterrean utzi itxura fisikoagatik.
- Ez inor bi bider biktimizatu, ez egin akats hori; alegia, ondo begiratu nola azaltzen dugun zer gertatu den, indarkeria jasan duen emakumeari ez diezaiozun sufrimendu gehigarrikeri eragin.

Definizioak eta oinarrizko kontzeptuak:

Oinarrizko kontzeptu batzuk, gai hau lantzen hasteko:

- **sexua:** Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, pertso-
nen kategoria biologikoak eta fisiologikoak dira.
- **genero-ikuspegia/analisia:** kontzeptu sozial eta kulturala da,
pertsoneen sexuan oinarritutako gizarte-rolari buruzkoa.
- **genero-estereotipoak:** edo estereotipo sexistak: zer sinesmen,
iritzi eta aurreiritzi dugun gizonen eta emakumeen dauzkaten edo
eduki beharko lituzketen ezaugarri edo atributuei buruz eta se-
xuaren arabera gizartean bete beharko lituzketen funtzioei buruz.





3. ZEHATZ-MEHATZ ZER EGIN

Nahi baldin badugu RTVEko profesionalek printzipio orokor horiek eguneroko lanean baliatzea, badira gauza batzuk egin beharrekoak. Aipa ditzagun hauek:

1. Eduki guztiak genero-ikuspegia erabiliz landu, eta hizkuntza inklusiboa baliatu.
2. Gizartearen eta boterearen eraginez, eremu batzuetan emakumearen lana ezkutuan geratzen da; halakoetan, emakumeak ikusarazi egin behar dira.
3. Informazioetan, analisietan eta eztabaidetan emakumeen eta gizonen presentzia parekidea sustatu. Emakumeak informazio-iturri modura baloratzea, batez ere emakume gutxi dagoen espazioetan. Emakumezko adituen zerrenda edo agenda bakar bat osatzea RTVE-ko albistegi eta programa guztietarako. Profesional guztiek izango dute eskura -gizon zein emakume-, arazorik gabe, erraz eta Intraneten bidez.
4. Solasaldietan eta iritzi-programetan gizon-emakumeak orekatu egotea, gaia edozein dela ere.
5. Bai denborapasako programetan bai albistegietan, adituengana jotzen dugunean, gizon-emakumeen artean oreka lortzen saiatzea.
6. Gizon-emakumeen ekarpenak berdin baloratzea. Lantzen ari garen esparruan masa kritikorik ez baldin badago (emakumeak

% 33,3), informazioa emateko orduan zilegi da azpimarratzea dena delako hautagaia, lehendakaria edo zientzialaria emakumezkoa dela.

7. Informazioak edo arazo orokorrak jorratzeko orduan, kontuan hartzea datuak sexuka ere bana daitezkeela. Hala egiteak baliteke inplikazio espezifikoak ekartzea emakumeentzat.
8. Gizon-emakumeak irudikatzeko orduan, estereotipo sexistak apurtzea; baina ez, bakarrik, Informazio-saioretan, baita, eta batez ere, denborapasako programetan eta fikziozkoetan ere, hala-koetan oraindik usu erabiltzen dira-eta.
9. Saia gaitzen emakumeen irudi positiboak sustatzen, gizarte, ekonomia eta politikan aktiboki parte hartzen dutela erakutsiz; baina baita gizonezkoen irudi positiboak ere, betikoak ez diren zereginetan, hala nola zaintza-lanetan.
10. Gure pantailetak emakumeek ez dute zertan denak berdinak izan fisikoki, funtzionalki eta adinez; susta dezagun aniztasuna. Desgaitasun-mota desberdinak dituzten emakumeak ere hartu lane-rako.
11. Sustatu behar dugu emakumeen kolektibo guztiak ondo ordezkaturik egotea, kontuan hartuz emakume kalte-errazenek diskriminazio bikoitzak edo hirukoitzak ere jasaten dituztela.
12. Gutxiengo etnikoetako edo jatorri migratzaileko emakumeen irudi positiboak sustatzea.
13. Emakumeen eta gizonen kultura- eta kirol-ekitaldiei garrantzi eta tarte bera eskaini, eta emakumeen lorpenak publikoki ospatu. Kirol batzuetan neskato-emakume gutxi izaten da, eta beste batzuetan mutiko-gizonak dira urri; halakoetan, kopuruz eskas dabilzan horiek ikusgarri egin, eta haien eredu positiboak erakutsi.
14. Kontuz nola banatzen ditugun denborak emisioetan, errotulazioetan eta titularretan, ez dezagun inor baztertu edo desberdin tratatu. Arreta berezia jarri kirolean.

15. Arreta berezia jarri umeen eta gazteen edukietan eta, bereziki, gaikako kanaletan (Clan, Playz), neskek eredu positiboak izan ditzaten erreferente gisa, eta berdintasunezko ereduak susta daitezzen adingabeentzat eta gazteentzat.

16. Gatazka eta gerrei buruzko informazioetan, genero-ikuspegia aplikatu eta neskato-emakumeen egoera ere ikertu beren beregiz.

17. Ez ahaztu Nazio Batuen Erakundeak lehentasunezko zer gidalerro eman zituen Bejingeko 95. Konferentzian. Gidalerro horiek ondo zaindu edukietan, XXI. mendeko erronketara eguneraturik:

- Emakumea eta osasuna.
- Emakumearen hezkuntza eta trebakuntza.
- Emakumeen aurkako indarkeria.
- Emakumea eta gatazka armatuak.
- Emakumea eta ekonomia.
- Emakumea eta botere-erabilera eta erabakimena.
- Emakumeek aurrera egiteko erakunde-mekanismoak.
- Emakumeen giza eskubideak.
- Emakumeak eta hedabideak.
- Emakumea eta ingurumena.
- Neskatoa.

18. Emakumeen eta nesken irudia berdintasunez tratatzea. Horretarako, gomendio espezifiko hauek proposatzen dira:

- Ez dezagun emakumeen gorputza gauza huts bihurtu; eta, horretara baldin badarama, irudietan edo kamera-mugimenduetan ez dezagun emakumearen gorputza zatikatu. Emakumez ari garela, saia gaitezen ez lehenesten ezaugarri fisikoak intelektualen gainetik.
- Irudiak muntatzeko orduan, ez erakutsi gizonak begiradaren subjektu modura eta emakumeak begirada horren objektu gisa.
- Planoen eta enkoadraketen osieran, ez ditzagun desberdin tratatu emakumeen eta gizonen irudiak.
- Emakumeen edertasunari dagokionez, ez dezagun sustatu -egiatik urruntxo dauden kanonei men eginez- gaztetasunean, argaltasunean edo gorputzaren perfekzioan oinarritzen den eredurik, baliteke-eta osasunerako kaltegarri diren

jokabideak sustatzea, edo arrakasta pertsonalarekin eta sozialarekin lotzea.

- Hortaz, toki publikoetan eta aisiarako lekuetan errodatzen dugunean, hala nola hondartzetan, igerilekuetan, diskoteketan edo kirol-ekitaldietan, mota guztietako emakumeak erretratatzeko ahaleginduko gara, eta ez soilik edertasun-kanon jakin bateko fisikoa dutenak.
- Emakumeak ez dira ez barregarri utziko, ez gutxietsiko ez irain egiteko moduan aurkeztuko, ezein jarduera profesioaletan ari direlarik ere.
- Irudietan, gizon-emakumeak maizago nor agertu erabaki behar denean, orekari eusten saiatu.
- Ez sortu familia- eta gizarte-estereotipo eta -rolak (jarduera-motak).
- Berdintasunaren kulturaren aurrera egiten laguntzearen, betidanik gizon-kontuak izan diren esparruetan emakumeen irudiak sartu; eta, betidanik feminizatuta egon direnetan, gizonen irudiak.
- Sexu biak erakutsi zeregin publiko eta pribatuetan elkarrekin, eta, horrela, talde-lana eta lankidetzak sustatu.





4. NOLA LANDU EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Nazio Batuen Batzar Nagusiak badu adierazpen bat, emakumearen aurkako indarkeria ezabatu nahian onetsia (NBE, 1993ko abenduaren 20a); honela definitzen du emakumeen aurkako indarkeria: *“Emakume izateagatik gertatzen den edozein indarkeria, emakumearentzat kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa dakarrena edo ekar dezakeena, eta indarkeria hori erabiltzeko mehatxu egitea, beldurtzea eta askatasunaz gabetzea, bizitza publikoan nahiz pribatuan. (1. art.)*

Istanbuleko Hitzarmenak dio **Emakumeen aurkako indarkeria** giza eskubideen urraketa larria dela.

Nazioarteko araubide juridiko gehienetan delitutzat hartzen dira emakumeen aurkako indarkeria-modu guztiak: indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala, bortxaketa barne; emakumeen genitalen mutilazioa; ezkontza behartua; jazarpena; abortu behartua; eta esterilizazio behartua.

Sexu- eta ugalketa-esplotazioa ere giza eskubideen urraketak dira. Garrantzitsua da gogoratzea prostituzioan diharduten emakume gehienak nolabait esplotazioaren eta pertsonen salerosketaren jirabiran dabiltzala. Gure ordenamendu juridikoan ordezko haurdunaldia ere debekatuta dago, erabat deuseza baita kontratu bat egitea -preziosa ordainduta edo ez- ituntzeko emakume bat haur batez erdituko dela baina amatasunari uko egingo diola kontratugilearen edo hirugarren baten

alde. Geroz eta sarriago kausitzen da herrialde txiroetako emakumeek haurra sortzea herrialde aberatsagoetako emakume eta gizonentzat. Emakumea ugalketarako ustiatzea da, eta globalizazioaren itzalpean gertatzen da.

Ikus dezagun zer jartzen duen Palermoko Protokoloan: *“esplotazioa izango da, besteak beste -eta gutxienez-, besteren prostituzioa esplotatzea, beste sexu-esplotazio mota batzuk, lan edo zerbitzu behartuak, esklabotza edo antzeko praktikak, morrontza edo organoen erauzketa”*. Egoera bereziki zaurgarritzat hartzen da pertsonak ez baldin badauka beste aukera benetakorik edo onargarririk, ezpada gehiegikeriari men egitea.

Osasunaren Mundu Erakundeak sexu-indarkeriatzat hartzen du: *“Behartuta egiten den edozein sexu-ekintza, edo inor hartara behartzen saiatzea, edo beldurra eraginez inoren sexualitatearen aurka egiten den beste edozein ekintza, berdin diolarik zer harreman dagoen egilearen eta biktimaren artean, eta edozein esparrutan delarik ere. Bortxaketa ere bai, alegia -definitu ere egiten baitu-, hertsapen fisikoa edo beste nolabaitekoa erabiliz, baginan edo uzkiekin zakila sartzea, edo gorputzaren beste zatiren bat, edo objekturen bat”*.

4.1. ARAUDIA

1. Har dezagun 17/2006 Legea, ekainaren 5koa, Estatuaren Titular-tasuneko Irrati eta Telebistari buruzkoa. 3.k) artikuluan ezartzen duenez, RTVE Korporazioak, zerbitzu publiko gisa duen eginkizuna betez, *gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna babestea sustatu beharko du, haien arteko diskriminazio oro saihestuz*.
2. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa. 37. artikuluan ezartzen duenez, RTVE Korporazioaren berezko helburuak dira *bizitzaren eremu guztietan emakumeen presentzia behar bezala islatzea, hizkera ez-sexista erabiltzea eta, autorregulazioaren bidez, berdintasun-printzipioaren edukia helarazteko jokabide-kodeak hartzea*.
3. 7/2010 Lege Orokorra, martxoaren 31koa, ikus-entzunezko komunikazioari buruzkoa. Honela dio:

- Ikus-entzunezko komunikazioak ezin izango du inoiz bulztatu gorrotoa edo diskriminazioa generoagatik edo edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik, eta giza duintasuna eta konstituzio-balioak errespetatu behar ditu, arreta berezia jarri emakumeen desberdintasun-egoerak eragiten dituzten jokabideak desagerraraztean (4.2 artikulua).
- *Salerosketarako komunikazioetan ezin da ez giza duintasuna urratu ez inolako bazterkeriarik sustatu aitzakia hartuta sexua, arraza-jatorri etnikoa, nazionalitatea, erlijio-sinesmenak, desgaitasunak, adina edo sexu-orientazioa. Debekaturik dago horrelako merkataritza-komunikazio oro. Era berean, debekatuta dago emakumearen irudia emakumeak iraintzeko edo diskriminatzeko moduan erabiltzen duen publizitate oro.* (18.1 art.).

4. Komunikabide publiko gisa, RTVEk zorrotz eta engaiaturik informatu behar du genero-indarkeriei buruz, barne-arauek ere ezartzen duten bezala. Orain, har dezagun RTVEko Informazioaren Estatutua, han baitatzen gure printzipio deontologikoak. Haien arabera, profesionalak "arreta berezia jarriko dute genero-indarkeriari buruzko informazioetan, eta igortzen dituzten mezuek ezin dute lagungarri izan gizartean inpunitate-ustea zabaltzeko delitu horien inguruan (9.17 art). Estatutu hori RTVE Korporazio-ko Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2008ko maiatzaren 14an.

5. Azkenik, Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituna aipatuko dugu, Diputatuen Kongresuak 2017ko irailaren 28an onartua. Itun horrek, bada, RTVE ere lotzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko helburura, eta berdintasun-behatokia sortzeko eskatzen dio korporazioari, gainbegiratzeko gizartearen eremu guztietan proiektatzen dela gizon-emakumeen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra.

4.2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO INFORMAZIOA

A.- PRINTZIPIOAK

- Emakumeen aurkako indarkeriak giza eskubideak urratzen ditu: bizitzeko eskubidearen, duintasunaren eta biktimen osotasun fisiko eta psikikoaren aurka egiten du. Delitua da. Ez da gai pribatu hutsa, ez dira etxeko kontuak. Arazo sozial larria da.
- Ez da “gertaera” soila, ezta “krimen pasionala” ere: Oinarrizko informaziorik ez badakarte, hobe xehetasun gordinenak ez ematea, hala nola zenbat labankada edo kolpe eman dizkioten.
- Erabil ditzagun interes publikoko datuak, adituak, jende prestatua; utzi alde batera “ez dut ba ezer entzun” esaten dutenak, edo “bikote normala ematen zuen ba”.

B.- HIZKUNTZA

Hitzek badute indarra emakumeen aurkako bortxaz daukagun irudipe-na aldatzeko: emakumeak, kasu honetan, ez dira beren kasa hiltzen. Emakumeak erail egiten dituzte.

Informazioa lantzen dugunean, garrantzitsua da terminoak ondo aukeratzea:

- **Emakumeen aurkako indarkeria:** Emakumeen aurkako indarkeria dira indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala, bortxaketa barne; emakumeen genitalak mutilatzea; ezkontza behartua; jazarpena; abortu behartua; eta esterilizazio behartua. (Istanbulgo Hitzarmena, Espainiak 2014an berretsia).
- **Genero-indarkeria:** “Indarkeria fisiko eta psikologiko oro, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak ere, edo mehatxuak, edo koakzioak, edo nor edo nori askatasuna “nahi-dugulako” kentzea, hala baitio Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko Legeak (2004ko abenduaren 28a) (1.3 art.)

- **Etxeko indarkeria:** Etxean gertatzen da, eta familiako edozein kidek jasan dezake.
- **Indarkeria matxista:** Edo -askotan sinonimo modura erabiltzen baitira- gizonak, botere-harremanetan oinarriturik, emakume-neskatoen aurka baliatzen duen indarkeria.
- **Genero barneko indarkeria:** Sexu/Genero bereko pertsonen artean gertatzen da.
- **Feminizidioa:** Gizonak emakumea hiltzea matxismoagatik edo misoginiagatik. Diccionario de la lengua española 2018

C.- INFORMAZIOA NOLA LANDU

Ez da gertaera soila edo “krimen pasionala”, gizarte-arazo larria baizik. Ikus dezagun nola landu behar den informazioa:

- **Ez** erabili betiko erraz-azalpenak, “ezkontideen arteko desadostasunak”, edo ezagunen eta auzoen testigantzak, “bikote normala ematen zuten, arazo handirik gabe, inork ez zituen xextran sumatu”.
- **Kokatu** ondo berria; minutu-banaketan zuzen. Aurkezpen eta leku txukuna eskaini, inork ez dezan lotu gertakari hutsalekin, istripuekin eta abar.
- **Informazio zehatza eta erabilgarria eman:** Albistea ez da, bakarrik, halakok tratu txarrak jasan dituela, edo halako lekutan emakume bat hil dutela. Hau ere albiste da:
 - biktimari zer laguntza eman edo eskaini zaion
 - auzitegien eta poliziaren lan akastuna
 - zigor-epaiak
 - bitzita berregitea lortu duten biktimak.
- **Sartu** adituen iritziak ere, arazoa kokatzen laguntzen baitute.
- Ikerketak zorrotza izan behar du:

- Datuak eta bertsioak kontrastatu egin behar dira.
 - Berria (albistea) testuinguruan kokatu behar duzu.
 - Ez da balio-judiziorik egin behar, ez eta tupustean informatu ere.
- Arriskuak saihestearren, anima ezazue informazioa lortzera eta laguntza-kanalak erabiltzera, egokienak zein diren adieraziz; baina zuzenean salaketa jartzera xaxatu gabe.
 - Zer gertatu den **berreraikitzea** erabilgarria da baldin eta balio badu informazioa emateko eta zer gertatu den hobeto ulertzeko. Ez sartu, kritika gabe, morbo-usaina duen xehetasunik.
 - **Ez erabili irudi edo xehetasun lizun-antzeko morbosorik.** “Espektakulurako” onak dira, baina ez dute ez informaziorik gehitzen, ez emakumeen aurkako indarkeria arbuizatzen bultzatzen.
 - **Kasuaren jarraipena:** Tratu txarrik eta erailketarik ezin da musutruk egin. Justiziak zer egin duen azaldu beharra daukagu, kondenarik egon den, eta zer kondena.
 - **Ez erabili “Gurasoen alienazio sindromea” deritzona (GAS),** Nazio Batuen Erakundeak esaten baitu ez dela zientifikoa; ideologikoa besterik ez dela. Espainian, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aholkatzen du ez dela erabili behar, teoria “sasi-zientifikotzat” hartzen baitu.
 - **Ez dugu inor sorgor utzi behar:** Etenik gabe horrelako informazioak ematen bagabiltza, baliteke ikus-entzuleak nekaturik amaitzea, axolagabe. Horregatik, beharrezkoa izango da:
 - Bila ditzagun ikuspegi eta lanketa-modu berritzaileak.
 - Ez esan “beste kasu bat”, “kasu berri bat” edo antzekorik.
 - Azpimarra dezagun zer egin zitekeen horrelakorik ez gertatzeko.
 - Albistea aberasteko, sartu informazio lagungarria eta ikuspegi berriak (laguntza-proiektuak, irteerak, kanpainak, etab.)

016 telefonoa, eta komunikazio elektronikoa, helbide honetan:
016-online@igualdad.gob.es: Informazioan, sartu itzazue doako telefono eta helbide elektroniko horiek, tratu txarrak salatzen bereziki gaitu baitira, edo beste edozein informazio baliagarri.

BIKTIMA

- **Biktimak ez dira zenbakiak, ezta estatistika hutsak ere:** Emakume bat hiltzen dutenean, gizateriaren zati bat hiltzen dute. **Errespetatu itzazu biktimaren nortasuna eta mina.**
- Biktima erakusteko, **ahal dela, ez erabili** irudi edo soinu lapurturik. Onartzen badute besterik ez erakutsi haren irudia.
- Biktimari edo ingurukoei kalte egiteko moduko **informaziorik ez sartu.**
- **Ez kriminalizatu biktima:** Nor den ez erakustearren erabiltzen ditugun metodo batzuek kriminalizazio-itxura ematen dute (begiak zerrenda beltz batez estaltzea, mosaiko-efektua, ahots-distortsioak eta abar). Ez egin horrelakorik. Hobe da kontra-argiak, off ahotsa eta abar erabiltzea.
- **Beharrezkoa da** biktimarekiko errespetuari ematea beti lehentasuna.
- **Beharrezkoa da** zuhur ibiltzea biktima identifikatzean. Ondo pentsatu komeni den edo ez biktimen irudia erakustea, beti.
- Utzi dituen ondorioak **azaltzea...** balio dezake gizarte-pedagogiarako, baina biktimarekiko errespetua gailendu behar da beti.
- **Adingabeak** ere genero-indarkeriaren biktima zuzenak dira (neska zein mutil). Pribatutasunaz eta tratuz emakumeentzat eman ditugun gomendio guztiek adingabeentzat ere balio dute; baina kontuz, adingabeak ezin ditugu inoiz identifikatu, adinagatik hain zuzen; hala dator jasota RTVEren Informazioaren Estatutuan ere.
- Ez ahaztu **neskatoak**. Jasaten duten indarkeriaren ezaguera eduki beharra dago. Garrantzitsua da horretan indar egitea, suertatzen diren egoera horiek garbi salatzea. Munduko hiru neskatilatik batek indarkeria-motaren bat jasango du bizitzan zehar. Etxeko indarkeria, sexu-abusuak, neskatilen ezkontza, sexu-salerosketa, "ohorezko krimen" izenekoak eta genitalen mutilazioa

usu gertatzen dira, eta, kazetari garen aldetik, guretzat erronka da halakoak dokumentatzea eta salatzea.

Eta biktima gizonezkoa bada? Ez da genero-indarkeriatzat hartzen, eta delitua ez da sartzten abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan (genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoan), baizik eta Zigor Kodean tipifikatutako erasoetarako ezarritako atal espezifikoetan. Erasotzailea emakumezkoa bada eta biktimarekin harreman sentimentalak baditu, gizonaren aurkako indarkeria da.

ERASOTZAILEA

- Argi utzi behar da nor den erasotzailea eta nor biktima.
- Erasotzailea nor den azaltzeari dagokionez, berriz, errugabetsun-presuntzioa beti errespetatu. Gai horretan bereziki kontu handiz ibili, izan ere, identifikazioan kale egiten baldin badugu (eta gertatu izan da), ondorio konponezinak eragin ditzakegu.
- Epaia emanda baldin badago, erasotzailea identifikatu, eta epaia eta zigorra azpimarratu.

Erasotzaileak nola jokatu duen:

- Argi eta garbi azaldu erasotzaileak nola jokatu duen; emakume bat baino gehiagorentzat lagungarria izan daiteke beste erasotzaile bat identifikatzeko eta bere burua arriskuan ote dagoen ikusteko.
- Erasotzailearen jokaeraz ari garela, zer datu dira garrantzitsuak? Bada, beste emakume batzuei lagun diezaieketenak ikusten berriak ere genero-indarkeriaren biktima direla, ez baita beti erraza.

Ikus ditzagun erasotzailearen ezaugarri batzuk:

- Kontrolatzailea da.
- Nartzisista.
- Beldurtzailea.
- Posesiboa.
- Ankerra.

- Mehatxatzailea.
- Nekez barkatzen eta ahazten du.
- Manipulatzailea.

Oro har, ez eskaini sexu-erasotzaileen adierazpenik, ezta tratu txarrak egiten dituztenenik ere, non eta ez den “erreportaje sakona” delako formatuan, eta adituen azterketaz jantzita. Informazioaren aldetik, bortxatzailearen elkarrizketak hutsaren hurrena balio du, ez behintzat biktimari eragiten zaion minak baino gehiago, erasotzailearen irudia normalizaturik ikusiko baitu. Erasotzaileei ez bidea eman ikus-entzuleengana iristeko; ez harritu beren onerako erabiltzen badute, beren buruen irudi gozoa eskainiz, “normalak” bailiran, “gizarterako positiboak”. Sexu-erasotzailearen adierazpenak eskainiz gero, baliteke biktimak berriro biktima bihurtzea, min handiagoa eragitea. Erasotzailea atsegingarri egiteko moduko ezer ez esan; ez du inork buruari bueltaka ibili behar zergatik egin ote duen, zer nahi ote zuen, edo zer sentimendu ote zeuzkan.

SEXU-INDARKERIA: gomendio espezifikoak.

- **Testuinguruan jartzea.** Ez da banakakoek egiten duten zerbait; baizik eta genero-desberdintasunak eragiten duen arazo sistemikoa, egiturazkoa. Ez sentsazionalismotik jo; estatistika-datuak eman eta panorama globala erakutsi. Gaizkile sexuala ez da pertsona gaixoa edo ustela; jokaera batzuen isla da, betiere gure gizarteko sistema patriarkalaren barruan kokatua.
- **Zer gertatu den objektiboki azaldu, dramatismorik gabe.** Informazioak ezin du inola ere adierazi biktima zelanbait ados ez ote zegoen edo bere kasa parte hartu ez ote zuen.
